

2008ko apirilaren 1ean, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

- 1.- 2.008KO OTSAILAREN 11, 12 ETA 26KO AKTEN ONARPENAK, BIDEZKOA BADA.
- 2.- ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.
- 3.- ZABAL-BERRI ETA LANBERRIKO BELAZEEN ENKANTEAREN ADJUDIKAZIOA ONARTZEA.
- 4.- LEPASORO BASERRIKO BIDEA KONPONTZEKO BIXENTE OTEGIK AURKEZTURIKO AURREKONTUA ONARTU ETA LANAK ADJUDIKATZEA.
- 5.- ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.
- 6.- ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
- 7.-GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2008ko martxoak 27.

ALKATEA.

2.008KO APIRILAK 1.

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

**ALKATEA
ZINEGOTZIAK:
Bertaratuak:**

Arantza Aburuza Alkorta.

Jose Antonio Irazu Mendizabal.
Miren Aburuza Alkorta.
Josu Amilibia Alsua.
Iñaki Aristeta Gurrutxaga.
Iker Iturrioz Lekuona.
Ainara Iturrioz Lekuona.

Bertaratu gabea:

Iñor ez.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta zortziko apirilaren bateko hogeitau ordu eta hamabost minutu izanik, Adunako Udaleko Udabatzak bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du beraz burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**LEHENENGO PUNTUA:
2.008KO OTSAILAREN 11, 12 ETA 26KO AKTEN ONARPENAK, BIDEZKOA
BADA.**

Alkateak 2008ko otsailaren 11, 12 eta 26ko akten berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziek aho batez onartzen dituzte.

**BIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinerazten du:

1.- Pello Ezeiza Iraola Jaunari 8979-FWL ibilgailuaren exentzioa ez onartzea (40/2008 Alkatetza Ebazpena).

2.- 2.008 urteari dagokion Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen errolda onartzea (41/2008 Alkatetza Ebazpena).

3.- Belca Urtaki Industriguneko 42.zenbakian makinaria enbalaketa iharduera legeztatzeke tramitatzen ari den espedientearen barruan, Alkatearen txosten faboragarria ematea (42/2008 Alkatetza Ebazpena).

4.- Cristaleria Albisu, S.L Urtaki industriguneko 27.zenbakidun pabiloian kristaldegi tailerra legeztatzeke tramitatzen ari den espedientearen barruan, Alkatezaren txosten faboragarria ematea (43/2008 Alkatetza Ebazpena).

5.- Dionisio Otegui Goicoechea Jaunari errekan tuboa bat jartzeko baimena ez ematea (44/2008 Alkateza Ebazpena).

6.- Ainara Iturrioz martxoaren 19tik 27ra El Salvadorra joateko bidaiaren erreserba ordaintzea (45/2008 Alkatetza Ebazpena).

7.- Pili Kortajarena Sorarrain Andereari Txantxaenea egokitzeko baimena ematea (46/2008 Alkatetza Ebazpena).

8.- Jesus Mari Gorostidi Jaunari Lardi baserriko teilatuan baimenik gabe egindako obrak legeztatzeke eskatzea (47/2008 Alkatetza Ebazpena).

9.- Romen, S.L enpresari inguruko zikinkeriak kentzeko errekerimentua jakineraztea (48/2008 Alkatetza Ebazpena).

10.- Posta zerbitzua kudeatzeko hitzarmena onartzea (49/2008 Alkatetza Ebazpena).

11.- Juan Jose Arregi Etxabe Uparan Cicarsa pabiloia ondoan dituen lursailak garbitzeko errekerimentua (50/2008 Alkatetza Ebazpena).

12.- Construcciones Lantegui, S.A enpresari, Aduanko 12.alderdiko 18.orubean zabaltze lanak lizentziarik gabe egiteagatik espediente sntzionatzailea irekitzea (51/2008 Alkatetza Ebazpena).

13.- Fermin Aranburu Barriola Jaunari Adunako 18.alorraren “ Erribera” Plan Partziala onartzen ez denaren jakinerazpena (52/2008 Alkatetza Ebazpena).

14.- Ainara Iturrioz martxoaren 19tik 27ra El Salvadorra joateko bidaiaren erreserba beste zatia ordaintzea (53/2008 Alkatetza Ebazpena).

15.- Jose Joaquin Chans Nieves Jauna Amalkor kaleko, 3 zenbakiko 1ªA etxebizitzan alta ematea (54/2008 Alkatetza Ebazpena).

16.- Adunako Zubitxiki Industriguneko Jauregi Aroztegikoei lokalaren teilatua legeztatzeke eskaera egitea (55/2008 Alkatetza Ebazpena).

**HIRUGARREN PUNTUA:
ZABAL-BERRI ETA LANBERRIKO BELAZEEN ENKANTEAREN
ADJUDIKAZIOA ONARTZEA.**

Ikusirik 2.008ko otsailaren 26ko Udalbatzan, Zabal-Berri eta Lanberriko belazearen enkanterako aurreko 3 urteetan onarturiko kantitate berberak onartzea erabaki zela.

Ikusirik kantitate hauek onartzerakoan, Udalak errore bat izan zuela.

Hori horrela, 4/1999 Legeak aldatu zuen Herri Administrazio guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazioaren Jardunbidearen 30/1992 Legearen 105. artikuluan ezarritakoaren arabera, bidezkoa da enkanterako deialdi hori baliogabetzea; izan ere, kantitate batzuk izan ordez beste desberdin batzuk izatea egintza deuseztagarria baita lege horrek 63. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Adierazitako guztia aintzat harturik,

ERABAKI DUT

1.- Udalbatzak 2008ko otsailaren 26an hartutako erabakia deuseztatzea eta, beraz, Lanberri eta Zabalberriko lursailen enkanterako onarturiko prezio zaharrak baliogabetzea.

2.- 2.008ko martxoaren 9an izan zen lursailen enkantea kontuan izan ondoren, Udalbatzak aho batez, ondoren aipatzen diren akordioak onartzea:

1.- Lanberriko subasta Juan Carlos Zabala Iraolari adjudikatzea 2.008, 2.009 eta 2.010 urtetarako, urte bakoitzeko 50 euro ordaindu beharko dituelarik

2.- Zabal-Berriko subasta Juan Iraola Elizondori adjudikatzea 2.008, 2.009 eta 2.010 urtetarako, urte bakoitzeko 50 euro ordaindu beharko dituelarik.

**LAUGARREN PUNTUA:
LEPASORO BASERRIKO BIDEA KONPONTZEKO BIXENTE OTEGIK
AURKEZTURIKO AURREKONTUA ONARTU ETA LANAK
ADJUDIKATZEA.**

Ikusirik Lepasoro baserriko bidea konpontzeko, Bixente Otegi Lizaso Jaunak aurkezturiko 19.061,70 €-tako aurrekontua.

Ikusirik bide konponketa hau Zizurkilgo Udalarekin batera egin behar dela eta obra guztiaren kostua, 38.123,40 €-tako dela

Ikusirik Udal Idazkariak egindako txostena.

Udalbatzak, aho batez eta Idazkariaren txostena kontuan izan ondoren, Bixente Otegi Jaunak Lepasoroko bidea konpontzeko aurkezturiko 19.061,70 €-tako aurrekontua onartzea erabaki du.

BOSTGARREN PUNTUA:
ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.

1.- Electricidad Zizurkil, S.L-k Adunako eskolan egin behar diren argiztapen lanetarako aurkezturiko 4.676,70 €-tako aurrekontua, Udalbatzak, aho batez, aurrekontu hau onartzea erabaki du.

Gai zerrendatik kanpo, honako gai hau aztertu eta erabaki da:

1.- Ikusirik Adunan “ URBI 3250” ereduko markesina bat instalatzeko Primur enpresak aurkezturiko 10.811,20 €-tako (BEZ-a barne) aurrekontua eta ikusirik Udal Idazkariak egindako txostena, Udalbatzak, aho batez, Primur enpresak aurkezturiko 10.811,20 €-tako aurrekontua onartzea erabaki du.